ALEMANIAKO BERRIKUNTZA

Posted on 09/03/2015 by Naider

Alemaniako ekonomia berrikuntzan aitzindarietako bat da. GTA, Alemaniako konpainia atzerriko ekonomia eta kokapenaren marketina, enpresa munduan dagoeneko martxan dauden herrialdeko hainbat berrikuntza azaltzen ditu.

Aurkezten den lehenengo gauza trenaren bideetan etenak detektatuz segurtasuna ematen duten sentsoredun robotak dira. Zubiak segurtasuna ematen dioten beste azpiegitura bat dira eta dagoeneko 100 ale daude martxan, horietako bat Alemania eta Frantzia arteko tunelaren artean.

Enpresaren barruan Alemanian egindako negozio eredu berritzaile bat aurkezten zaigu. Garapen sailaren eta ekoizpen sailaren artean apenas dago distantziarik, produktu berriak maizago eta azkarrago atera daitezen. Horrek enpresa merkatura egokitzea areagotu egiten du, aurrerapena eta ez gelditzea eguneroko negozio munduan.

Negozio-eredu honen eraikuntza enpresaren osagai guztien arteko komunikazioa etengabea eta hurbila izan dadin eraikitzen da, aurrez aurre lehenetsiz. Ingurune honek iritzi eta ideia kopuru handiagoa eragiten du, eta horrela enpresaren sormena eta eraginkortasuna hobetzen dira. Enpresako posizio ezberdinen arteko gardentasuna eskaintzen du eta enpresa txiki eta ertainen merkatu globalean kokatzea ahalbidetzen du.

Hobekuntza asko behar dituen arren, Europa enpresa-berrikuntzaren abangoardian dago. Horren froga da Volkswagen auto-marka alemaniarra. 2013an I+Gn 10.900 milioi dolar inbertitu zituzten merkatu globalaren ikerketan liderrak.

Azkenik, izenez ezagutzen den produkzio-sistema adimenduna azaltzen da. Industria 4.0. Fabrikazio prozesu aurreratu hau Internet eta puntako teknologiak erabiltzean datza, elkarren artean askoz hobeto konektaturik dauden produkzio-kateak garatzeko, hutsegiteak azkar detektatzeko eta ingurumena hobeto zaintzeko.

There are no comments yet.